

KOLOREEN MAGOA

1.zafia

Duela aspaldiko garai batean, ez zen kolorerik. Kasik dena grisa zen, eta grisa ez zena beltza zen. Munduaren garai grisa deitu dugu.

Goiz guziz, mago batek ingurumena berinatik begiratzen zuen :

« iduritzen zait mundu horrek zerbait falta duela. Euria ala iguzkia izan dadin, ez dugu diferentziarik ikusten... »

Ardura, magoa bere soto ilun eta grisara jausten zen. Han, mundu hits hori ahanzteko esperientzia magikoak egiten zituen.

KOLOREEN MAGOA

2.zafia

Egun batez magoak gauza anitz nahasi zituen, eta gauza bitxi bat agertu zen bertzaren zolan.

- "Zoin ederra den ! Gehiago eginen dut."

- "Zer da hori ?" galdegin zuten auzoek

Magoak etxea tindatzean, erantzun zuen:

- "Kolore bat da. Urdina deitu dut."

- "Otoi, emaiten ahal diguzu pixka bat !"

- "Plazerrekin", erantzun zuen magoak.

Hola hasi zen urdinaren moda. Laster, dena urdina bilakatu zen, mundu alai batean. Arbolak urdinak ziren, behiak urdinak ziren, kattalingorriak urdinak ziren, eta urtxintxak ere.

Magoa bere bizikleta urdinaren gainean ibiltzen zen bere mundu urdina miresteko. Erraiten zuen : « xoragarria da ! »

KOLOREEN MAGOA

3.zafia

I Bainan urdin guzi hori ez zen hain xoragarria. Denbora
I baten buruan, urdinak denak ilundu zituen. Haurrak ez
I ziren gehiago jostatzen, oilarrek ez zuten gehiago kantatzen,
I arbolak nigarrez ari ziren, kantariak kantu tristeak kantatzen
I zituen.

I - "Urdin hori arrunt tristea da, nehork ez du gehiago irri egiten."
I Erran zuten auzoek.

I - "Egia duzue. Zerbait egin behar dut", erantzun zuen
I magoak.

KOLOREEN MAGOA

4.zafia

Beraz ondotik, magoak gauza anitz nahasi zituen, eta gauza berri bat agertu zen bertzaeren zolan.

- "Zoin alaia den ! Gehiago egingen dut."

- "Zer da hori ?" galdegin zuten auzoek.

Magoak xeila tindatzean, erantzun zuen:

- "Hau, horia deitu dut", erran zuen magoak

- "Ukaiten ahal dugu hori pixka bat otoi ?"

- "Gogotik !"

Hola hasi zen horiaren moda. Laster, mundu osoan dena horia bilakatu zen. Ibaiak eta itsasoak horiak ziren zerua bezala, xerriak horiak ziren, urtxintxak ere bai. Ile guziak horiak ziren, arbolen hostoak bezala. Aita, ama, Peio ttipia eta bere xakurra ere bai.

Magoa bere zaldi gainean ibiltzen zen mundu horia deskubritzeko.

- "Bikaina da !" erran zuen.

KOLOREEN MAGOA

5.zafia

Bainan hori guzi hori, ez zen hain bikaina. Laster, horiak denak
itsutu zituen. Jendeak, begiak hetsirik eta leihoak zerraturik
bizi ziren beren etxeetan. Denetan kaskatzen ziren,
karriketan, bideetan. Xoriak ez ziren gehiago hegaldatzen.

- "Hori hau sobera argia eta itsugarria da", erran zuten
auzoek magoari.

- "Zuk errazu ! Denek buruko mina dute eta nik ere !" erantzun
zuen magoak.

KOLOREEN MAGOA

6.zafia

Orduan, magoak gauza anitz nahasi zituen, eta gauza berri bat agertu zen bertzairen zolan.

- "Miresgarria da ! gehiago egingen dut !"

- "Nola deitzen duzu hori ?" galdegin zuten auzoek.

Magoak baratzeko loreak tindatzean, erantzun zuen:

- "Gorria izena du."

- "Nahi ginuke ere."

- "Berehala !"

Hola hasi zen gorriaren moda. Laster, mundu osoan dena gorri bilakatu zen. Erreka zerua bezain gorria zen, lapinak gorriak ziren xoriak bezala, gasna gorria zen, izozkiak, bixkotxak, xapelak, berokiak eta urtxintxak ere bai.

Gatua arraina bezain gorria zen. Magoa bere itsasontzi gorrian zen.

- "Ideala da !" erran zuen magoak.

KOLOREEN MAGOA

7.zafia

Bainan gorri hori guzia ez zen hain ideala. Laster, ttipi eta handiek dena gorri ikusten zuten. Gorria burura igaiten zen eta denbora berean haserrea.

Ttipiak gaixtoak bilakatzen ziren. Ileak tiratzen zituzten edo hortzak hausten. Handiek gerla egiten zuten : azietak hausten zituzten eta armekin tiratzen.

Auzoak, kexu, magoaren etxera joan ziren.

- "Mundu gorri itsusi hori zuk egin duzu !"

Harriak bota zituzten. Magoa haserre gorrian ezarri zen.

Tarrapatakan, bere soto ilun eta gorrira jautsi zen.

KOLOREEN MAGOA

8.zafia

! Azkenean, magoak formula magiko guziak entseatu zituen !
! kolore berri baten atxemaiteko. Baina urdina eta bakarrik !
! urdina, horia eta bakarrik horia, gorria eta bakarrik gorria egin !
! zituen, bertza guziak beteak izan arte.

! Bat-batean, bertza guziak erori ziren. Urdin, hori eta gorria !
! nahasi ziren. Orduan magoak oihu egin zuen :

! - « Atxeman dut ! »

! Eta dantzan hasi zen, lorios, sotoaren erdian.

! Magoak urdina eta gorria nahasi zituen eta kolore berri bat egin !
! zuen: ubela agertu zen.

! Horia et urdina nahasi zituen eta berdea agertu zen.

! Horia eta gorria nahasi zituen eta laranja agertu zen.

! - « Aupa !!! »

KOLOREEN MAGOA

9.zatia

- "So egin ze gauza politak asmatu dituztan !"
- "Zer da hori ?" galdegin zuten auzoek.
- "Ubela, berdea, laranja ... kolore berri batzu dira!"
- "Xoratuak gira!"
- "Zein kolore hautatuko dugu ?"
- "Banazka baliatu behar dira", erran zuen magoak.

Jendeek, magoak sortu kolore guziak hartu zituzten. Laster kolore bakoitzak bere lekua atxeman zuen eta magoak berina ideki zuelarik erran zuen :

- "Xoragarria, bikaina eta ideala da !"

Eskertzeko, auzoek magoari opariak ekarri zituzten : sagar gorriak, hosto berdeak, banana horiak, lore urdinak eta mahats ubela. Azkenean, mundua sobera ederra zen zerbait aldatzeko.